



AYUNTAMIENTO
DEL VALLE DE
ULZAMA
(Navarra)
**ULTZAMAKO
UDALA**

ULTZAMAKO UDALA

Udal tasa, prezio publiko eta zergei dagozkien karga-tasak, 2018ko ekitaldian indarra izanen dutenak. Hasierako onespena

Utzamakako Udalak, 2017ko abenduaren 14an egin osoko bilkura arruntan, erabaki zuen hasiera batean onestea honako tasa eta prezio publiko hauek arautzen dituzten udal ordenantzetako aldaketak: Agiriak luzatu eta tramitatzeko tasak, Ur horniduraren tasak, Udalaren kirol instalazioak erabiltzeko tasak, Udalaren baskula erabiltzeko prezio publikoak, Irekitzeko lizentzien tasak eta Hirigintzako jarduketetarako tasak, Herrilurretako aprobetxamenduen kanonak, Larraintzako Benta Gizarte Etxea eta udal eraikinetako gainerako lokalak erabiltzeko prezio publikoak eta udal karpa alokatzeko prezioak. Gainera, ondotik ematen diren udal zergetako karga-tasa, indize eta portzentajeak finkatu dira 2018rako.

Aldaketa espediente hau jendaurrean egonen da hogeita hamar egunez, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina, interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazio, kexa edo oharra aurkez ditzaten.

Jendaurreko epean espedienteari buruzko alegaziorik aurkeztu ezean, behin betikoz onetsita geldituko da eta haren testu osoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean emanen da argitara.

Larraintzar, 2017ko abenduaren 14a. Alkate anderea, Aránzazu Martínez Urionabarrenechea.

ZERGAK:

Hirilurreko ondasunen gaineko kontribuzioa: 0,17%

Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga: 3,5%

Jarduera ekonomikoak: 1,1 indizea aplikatuko da gutxieneko kuoten gainean.

Hirilurren balio igoeraren gaineko zerga:

- Sortzapena egiteko unean lurra duen balioaren gainean ezartzen dira honako portzentaje hauek:

-Batetik bortsu urte artekoa: 2,4.

-Hamar urte artekoa: 2,3.

-Hamabortsu urte artekoa: 2,2

-Hogei urte artekoa: 2,2.

.-%13ko karga-tasa ezarri da, urteko.

Hutsik dauden etxebizitzaren gaineko zerga:

-1. urteko karga-tasak: 0,12%.

-2. urteko karga-tasak: 0,60%.

-3. urteko eta hurrengoetako karga-tasak: 1,20%.

TASAK ETA PREZIO PUBLIKOAK:

1. TASAK ETA DOKUMENTUEN TRAMITAZIOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA:

Tarifak



5. artikulua. Ordenantza honek tarifa hauek izanen ditu:

1. Agiriak.

a) Edozein udal agiriren kopiak eta fotokopiak.

DINA A-4 tamainako orri bakoitzeko: 0,10 euro.

DINA A-4 tamainako orri bakoitzeko, koloreetan: 0,30 euro

DINA A-3 tamainako orri bakoitzeko: 0,15 euro.

DINA A-3 tamainako orri bakoitzeko, koloreetan: 0,45 euro

DINA A-4 tamainako kopia bi aldeetatik: 0,20 euro.

DINA A-3 tamainako kopia bi aldeetatik: 0,30 euro.

Artxiboko agirien fotokopiak: 4 euro

b) Agiriak konpultsatzea.

Konpultsa bakoitza: 1,00 euro

2-20 konpultsa, bakoitzeko: 0,60 euro

21 konpultsa baino gehiago, bakoitzeko: 0,50 euro

c) Lurzatien zedulak, bakoitzeko: 1,20 euro

d) Faxak bidaltzea.

DINA A-4 tamainako orri bakoitzeko: 0,15 euro.

DINA A-3 tamainako orri bakoitzeko: 0,20 euro.

e) Plastifikatzea.

DINA A-4 tamainako orri bakoitzeko: 0,50 euro.

f) Koadernatzea.

DINA A-4 tamainako orri bakoitzeko: 10 euro.

2. Ziurtagiriak:

Udalaren datu-base informatikoetan bildutako datuen ziurtagiria: 1,00 euro

Espediente administratiboetan eta artxiboan jasotako erabaki edo agirien ziurtagiria:

Artxiboarena. 4 euro

Aldez aurretik txostena behar duen ziurtagiria: 15 euro

3. Arma txartelen tramitazioa.

Arma txartel batengatik: 5,20 euro

4 arma txartelarengatik: 10,40 euro

5 arma txartelarengatik: 12,40 euro

4. Irekitzeko eta titulartasuna aldatzeko lizentziak: 9,80 euro

5. Ahalmenak askiestea.

Askieste bakoitza: 6,25 euro

6. Aurrekontuak eta ordenantza fiskalak.

Ordenantzak, ale bakoitza: 11 euro



Aurrekontuak, ale bakoitza: 11 euro

7. Txostenak egiteagatik eta galderak erantzuteagatik, hirigintzari buruzkoak izan ezik: 11 euro

9. Ordainagiri helbideratuak itzultzea (Udalarekin ikustekorik ez duten arrazoiengatik): 1,5 euro itzulitako ordainagiri helbideratu bakoitzeko.

2.-ORDENANTZA FISKALA, INGURUMENA BABESTEKO JARDUERA SAILKATUEN ETA JARDUERA KALTEGABEEN KONTROLAREN ARLOAN BAIMENAK EMATEKO TASAK ARAUTZEN DITUENA INGURUMENA BABESTEKO ETA JARDUERA KALTEGABEAK:

TARIFEN ERANSKINA

I. epigrafea.

Jarduerarako lizentzia eta jarduerarako lizentziaren berrikuspena.

Jarduera sailkaturako lizentzia bakoitza 624,00 euro.

Jarduera kaltegabeko lizentzia bakoitza 208,00 euro.

Jarduera sailkaturako lizentziaren aldaketa bakoitza 200,00 euro.

II. Epigrafea.

Irekitzeko lizentzia eta irekitzeko lizentzia aldatzea.

Irekitzeko lizentzia bakoitza. Irekitzeko lizentzia bakoitza. Jarduera ekonomikoen gaineko urteko kuotaren %70 ordaindu beharko da; betiere, 250,00 euro gutxienez eta 720,00 euro gehienez.

III. Epigrafea.

Instalazioak eta lokalak berriz irekitzeko baimena, munta handiko lanak egin ondotik, haiek egiaztatu behar direnean edo baimena behar dutenean jarduera handitu, berriz kalifikatu, eskuz aldatu edo titularra aldatzeko.

A.-Jarduera handitzeagatik, jarduera ekonomikoen gaineko urteko kuotaren %70 ordaindu beharko da; betiere, 260,00 euro gutxienez eta 748,80 euro gehienez.

B.-Berriz kalifikatzeagatik edo sailkapena aldatzeagatik, jarduera berriaren kuotaren eta lokal berean egiten den jardueraren arteko aldea ordainduko da, eta gutxienez 260,00 euro.

C.-Titulartasuna aldatzeagatik eta negozioa laga edo eskualdatzeagatik, jarduera ekonomikoen gaineko zergaren kuotaren %70 ordainduko da; betiere, 260,00 euro gutxienez eta 748,80 euro gehienez. Salbuespena da eskabidea sei hilabeteko epean egitea aurreko titularrari Udalak lizentzia ematen dionetik hasita, orduan 260,00 euro ordainduko baita.

IV. Epigrafea.

Aipatu baimenen tasa guztiendako arauak:

- Prentsan eta/edo gainerako hedabideetan ateratzen diren iragarki eta argitalpenen zenbatekoa, araudiaren arabera argitaratzea beharrekoa bada, interesdunen kargura izanen da.



AYUNTAMIENTO
DEL VALLE DE
ULZAMA
(Navarra)
**ULTZAMA
UDALA**

- Espedientea ebatzitakoan, tasaren zenbatekoa kobratuko da jarduera, irekitzea, titulartasun aldaketa etab. azkenik gauzatzen den ala ez kontuan hartu gabe.
- Espedientea hasita dagoela interesdunak uko egiten badio, kasuan kasuko tasaren %50 ordainduko da.

3. UDALEKO KIROL INSTALAZIOAK ERABLITZEKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA:

Tarifak

* Tarifa merkatzeko, minusbalioa udaletxean frogatu beharko da, behar diren frogagiriak aurkeztuz (ziurtagiriak, txostenak...).

*Beharpenei dagokienez, familia unitateko lehen graduako kideei aplikatuko zaizkie, eta hori Udaletxean frogatu beharko da, behar diren frogagiriak aurkeztuz (familia liburua, bizikidetzaren agiria antzinasunarekin). Lehenbizi zaharrenak ordainduko du eta ondotik deskontua aplikatuko zaie familia unitateko gainerako kideei.

*Tarifak aplikatzerakoan kontuan hartuko da erroldatua egotea, 6 hilabeteko antzinasunarekin bederen.

*Tarifak aplikatzerakoan kontuan hartuko da denboraldiaren bukaeran izanen diren urteak.

1.-Instalazio guztiak erabiltzeko abonamendua: 62,40 euro urtean.

Deskontuak:

Familiako bigarren kideagatik: %10.

Familiako hirugarren kideagatik eta hurrengoengatik: %20.

2.-Udalak kudeatzen dituen igerileku estali gabeak.

a) Denboraldiko abonamendua (erroldatuak):

4 urte artekoendako, 4 urtekoak barne: doan.

Haurrak (5-16 urte): 31,20 euro.

Helduak: 46,80 euro.

Erretiratuak eta %33ko minusbalioa edo handiagoa dutenak: 20,80 euro.

Denboraldiko abonamendua (erroldatu gabeak):

4 urte artekoendako, 4 urtekoak barne: doan.

Haurrak (5-16 urte): 40,00 euro.

Helduak: 60,00 euro.

Erretiratuak eta %33ko minusbalioa edo handiagoa dutenak: 30,00 euro.



AYUNTAMIENTO
DEL VALLE DE
ULZAMA
(Navarra)
**ULTZAMA
UDALA**

*Deskontuak:

Familiako bigarren kideagatik: %10.

Familiako hirugarren kideagatik eta hurrengoengatik: %20.

*Deskontuok Ultzamako udal igerilekuetako bazkideei ere aplikatzen ahalko zaizkie.

b) Eguneko sarrerak (errolatuak):

4 urte artekoendako, 4 urtekoak barne: doan.

Haurrak (5-16 urte).

Arrunta: 5,20 euro.

Egun erdia (15:00etatik aitzina): 3 euro.

–Helduak:

Arrunta: 7,30 euro.

Egun erdia (15:00etatik aitzina): 4 euro.

Erretiratuak eta %33ko minusbalioa * edo handiagoa dutenak:

Arrunta: 5,20 euro.

Egun erdia (15:00etatik aitzina): 3 euro.

Eguneko sarrerak (errolatu gabeak):

4 urte artekoendako, 4 urtekoak barne: dohainik.

Haurrak (5-16 urte).

Arrunta: 6,50 euro.

Egun erdia (15:00etatik aitzina): 4 euro.

–Helduak:

Arrunta: 9,00 euro.

Egun erdia (15:00etatik aitzina): 5,50 euro.

–Erretiratuak eta %33ko minusbalioa * edo handiagoa dutenak:

Arrunta: 6,50 euro.

Egun erdia (15:00etatik aitzina): 4 euro.

3.–Igeriketa ikastaroak.



AYUNTAMIENTO
DEL VALLE DE
ULZAMA
(Navarra)
**ULTZAMA
UDALA**

–Erroldatuak:

- a) Helduendako igeriketa ikastaroak (17 urtetik goiti): 40,00 euro/laguna/ikastaroa.
- b) Haurrendako igeriketa ikastaroak (3 urtetik 16ra bitarte): 35,00 euro/laguna/ikastaroa.
- c) Erretirodunendako igeriketa ikastaroak: 25,00 euro/laguna/ikastaroa.

–Erroldatu gabeak:

- a) Helduendako igeriketa ikastaroak (17 urtetik goiti): 60,00 euro/laguna/ikastaroa.
- b) Haurrendako igeriketa ikastaroak (5 urtetik 16ra bitarte): 52,50 euro/laguna/ikastaroa.
- c) Erretirodunendako igeriketa ikastaroak: 37,50 euro/laguna/ikastaroa.

* Igeriketa ikastaroetan izena eman ahalko dute soilik igerilekuko denboraldiko abonua dutenek edo kirol instalazioetako bazkideek eta 4 urtetik behera dituzten horien seme-alabek

4.–Futbol zelaia.

- a) Ordu eta erdiko alokairua: 46,80 euro.
%50eko deskontua hurrengo ordu eta erdian alokatuz gero.
- b) Ordu eta erdiko alokairua (lehiaketa): 20,80 euro.
- c) Talde antolatuentako alokairua (kanpaldiak, txangoak etab.): 20,80 euro.

5.–Pilotalekua.

Ordu beteko argia: 4 euro txanponekin.

a) Abonatu gabeak:

Kantxa erabiltzea, ordu bete: 11,00 euro.

b) Abonatuak abonatu gabeekin:

Kantxa erabiltzea, ordu bete: 8,80 euro.

c) Profesionalen, taldeen eta eskolen entrenamenduak:

Kantxaerabiltzea, ordu bete: 16,50 euro.

* Oharra: 6 lagunetik goiti taldetzat hartuko da.



AYUNTAMIENTO
DEL VALLE DE
ULZAMA
(Navarra)
**ULTZAMA
UDALA**

e) Kirola ez bertze jarduerak eta ikuskizunak:

-Ikusleei sarrera kobratzen bazaie eta/edo ostatu zerbitzurik bada, jarduera eta egun bakoitzeko: 100,00 euro.

-Ikusleei sarrerarik kobratzen ez bazaie, jarduera eta egun bakoitzeko: 50,00 euro.

f) Gaua pasatzea:

-20 pertsona arteko taldeak: 80,00 euro/gaua.

-20 lagunetik goitiko taldeak: 150,00 euro/gaua.

-Ongintza arloko elkarteak edo irabazi asmorik gabekoak, udal interesekotzat jotzen direnak: 0,0 euro/gaua.

6.-Kiroldegia, taldeentzat.

-Alokairua, ordu bete: 27,50 euro.

-Argiak: ordu bete: 5,50 euro.

%50eko deskontua, bigarren ordua alokatuz gero.

-Alokairua, ordu bete, lehiaketa baterako izanez gero: 22,00 euro.

-Taldea antolatuendako alokairua (kanpaldiak, txangoak etab.): 18,70 euro.

-Kirola ez bertze jarduerak eta ikuskizunak:

a) Ikusleei sarrera kobratzen bazaie eta/edo ostatu zerbitzurik bada, jarduera eta egun bakoitzeko: 1.320,00 euro.

b) Ikusleei sarrerarik kobratzen ez bazaie, jarduera eta egun bakoitzeko: 330,00 euro eguneko.

c) Kirolez kanpoko erabilerengatik, ikuslerik gabe: 330,0 euro eguneko.

* Oharra: 600,00 euroko bermea eskatuko da.

7.-Udal karpa alokatzeagatik:

-721 euro (gehi dagokion BEZa), karparen %100 alokatzeagatik (karpa osoa).

-655,50 euro (gehi dagokion BEZa) karparen 3/4 alokatzeagatik.

-590 euro (gehi dagokion BEZa) karparen 1/2 alokatzeagatik.

Entitate errentariak gutxienez ere lau lagunek ekarpena egin beharko du, bere kargura, karpa muntatu eta desmuntatzeko.



Karpa itzultzeko epea betetzen ez denean entitate errentariak behar adina langile ez ekartzeagatik hura kentzeko, 500,00 euroko tasa osagarria kobratuko da.

Udalari karpa lagatzeko eskatzen zaionean, zehatz-mehatz adieraziko da zer egunetan erabiliko den.

Erabiltzeko eskaerak Udalean aurkeztuko dira, gutxienez ere erabili baino astebete lehenago; bestela, 30 euroko zigorra aplikatuko da eguneko.

8.–Karpa txikiak alokatzeagatik:

–10 euro (gehi dagokion BEZa) bakoitzagatik.

4.–ORDENANTZA, UDALAREN BASKULA ERABILTZEKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUENA

ERANSKINA

A) Pisaldi bakoitza:

–0tik 10 tona arte: euro 1.

–10etik 20 tona arte: 1,60 euro.

–20 tonatik goiti: 2,20 euro.

B) Urteko txartel magnetikoa erostea:

–Txartel 1etik 4ra bitarte, bakoitza: 165,00 euro.

–5 txarteletik goiti, bakoitza: 33,00 euro.

C) Txartelaren ale bikoiztua, jatorrizkoa hondatu edo galtzearen ondorioz emana: 33,00 euro.

5.–ORDENANTZA, HIRIGINTZAKO JARDUERAK EGITEKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

TARIFEN ERANSKINA

I. epigrafea.–Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 189. artikulua babesean emandako lizentziak.

1.1. Lurzatiketa lizentziak: Lizentzia bakoitza tramitatu eta ebatzeko tasak: 62,4 euro. Espedientea ebatzita, tasaren zenbatekoa kobratuko da lurzatitza azkenik gauzatzen den ala ez kontuan hartu gabe.

Espedientea hasita dagoela interesdunak uko egiten badio, kasuan kasuko tasaren %50 ordainduko da.



AYUNTAMIENTO
DEL VALLE DE
ULZAMA
(Navarra)
**ULTZAMA
UDALA**

1.2. Bizitegietako eraikinak zaharberritzeko obra lizentziak: Tasa honen kuota kalkulatzeko, 8. artikuluan xedatutakoari jarraikiz zehaztutako zerga-oinarriari ondoko karga-tasa aplikatuko zaio: %0,50 euro, gutxienez 30 euro. Espedientea ebatzita, tasaren zenbatekoa kobratuko da obra azkenik gauzatzen den ala ez kontuan hartu gabe.

Espedientea hasita dagoela (eta ebatzi baino lehen) interesdunak uko egiten badio, kasuan kasuko tasaren %50 ordainduko da.

1.3. Obra lizentziak, eraitsi, eraiki, zaharberritu, instalazioak egin eta lizentzia behar duten gainerako egintzetarako: Tasa honen kuota kalkulatzeko, 8. artikuluan xedatuari jarraikiz zehaztutako zerga-oinarriari karga-tasa hau aplikatuko zaio: %0,50 euro, gutxienez 30 euro.

Espedientea ebatzita, tasaren zenbatekoa kobratuko da obra azkenik gauzatzen den ala ez kontuan hartu gabe.

Espedientea hasita dagoela (eta ebatzi baino lehen) interesdunak uko egiten badio, kasuan kasuko tasaren %50 ordainduko da.

1.4. Eraikinak eta instalazioak lehen aldiz erabili edo okupatzeko lizentziak: eraikinak lehen aldiz erabili edo okupatzeko lizentzia bakoitza tramitatu eta ebatzteagatik: 208 euro. Espedientea ebatzita, tasaren zenbatekoa kobratuko da bizigarritasun zedula lortzen den ala ez kontuan hartu gabe.

Espedientea hasita dagoela (eta ebatzi baino lehen) interesdunak uko egiten badio, kasuan kasuko tasaren %50 ordainduko da.

1.5. Eraikinen erabilera, erabat edo hein batean, aldatzeko lizentziak: Lizentzia bakoitza tramitatu eta ebatzeko tasak: 156,00 euro. Espedientea ebatzita, tasaren zenbatekoa kobratuko da interesdunak eskatutako erabilera aldaketa gauzatzen duen ala ez kontuan hartu gabe.

Espedientea hasita dagoela (eta ebatzi baino lehen) interesdunak uko egiten badio, kasuan kasuko tasaren %50 ordainduko da.

II. epigrafea.–Hirigintzako kontsultei erantzutea.

–Hirigintza arloko galderei erantzuteagatik: 52 euro.

–Txostenak egiteagatik: 20,80 euro.

III. epigrafea.

Hirigintzako Udal Plana eta Plan Partzialak aldatzeko espedienteak tramitatzeagatik: 100 euro.

Xehetasun azterlanen espedienteak, hirigintza hitzarmenak, birzatiketa proiektuak, urbanizazio proiektuak eta exekuzio unitateen aldaketak tramitatzeagatik: 80 euro.

Kasu horietan guztietan arau hauek aplikatuko dira:

–Prentsan eta/edo gainerako hedabideetan ateratzen diren iragarki eta argitalpenen zenbatekoa, araudiaren arabera argitaratzea beharrezkoa bada, interesdunen kargura izanen da.

–Espedientea behin betiko onetsi ondoren, tasa honen zenbatekoa osorik kobratuko da, interesdunak uko egiten dion kontuan hartu gabe.



–Espedientea hasita dagoela (eta ebatzi baino lehen) interesdunak uko egiten badio, kasuan kasuko tasaren %50 ordainduko da.

6.–ARAU FISKALA, “LARRAINTZARKO BENTA” GIZARTE ETXEKO ARETOAK ERABILTZEKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUENA.

ARAU OROKORRAK

1. taldea: Gizarte etxea kudeatzen duten udalerrien eremu edo esparrutik kanpoko sindikatuek, elkarteek, entitateek edo taldeek antolatutako ekitaldiak edo jarduerak.
2. taldea: Enpresa pribatuek edo antzekoek antolatutako ekitaldiak edo jarduerak.
3. taldea: Gizarte etxea kudeatzen duten udalerrien eremu edo esparruko herritarrek beren izenean antolatutako ekitaldiak edo jarduerak, baldin eta erabiltzaileei edo bertaratzen direnei kobratzen bazaie eta/edo irabazi asmorik bada.

Noiz ordaintzetik salbuetsirik:

- a) Kultur, kirol edo bertzelako jarduerak, bilerak edo ikastaroak, gizarte etxea kudeatzen duten udalek edo udal horiek osatzen dituzten mankomunitateek eta udal horien barreneko kontzejuek antolatuak.
- b) Gizarte etxea kudeatzen duten udalerrien eremuan edo esparruan eratuta dauden elkarten eta taldeen jarduerak.
- c) Aralar Musika Eskola.
- d) Gizarte etxea kudeatzen duten udalerrien eremu edo esparruetako bizilagunendako ikastaroak edo jarduerak, baldin eta erabiltzaileei edo bertaratzen direnei kobratzen ez bazaie eta/edo irabazi asmorik ez bada.
- e) Cederna-Garalur elkarte.
- f) Gizarte etxea kudeatzen duten udalerrien eremu edo esparruetako bizilagunek antolatutako bilerak edo jarduerak, baldin eta irabazi asmorik ez bada edo kobratzen ez bada.

TARIFEN ERANSKINA

A.–Ekitaldi Aretoa.

–Gehienez ere 4 ordurako uztea.

- 1. multzoa: 70,00 euro.
- 2. taldea: 100,00 euro.
- 3. taldea: 15,00 euro, 2 ordu bitarte.
 - 25,00 euro, 4 ordu bitarte.



AYUNTAMIENTO
DEL VALLE DE
U L Z A M A
(Navarra)
**ULTZAMA
U D A L A**

–Lagatzea, 4 ordutik gora.

- 1. taldea: 15,00 euro/ordua.
- 2. taldea: 25,00 euro/ordua.
- 3. taldea: 5,00 euro/ordua.

B.–Aretoak.

–Lagatzea, gehienez ere 4 ordurako.

- 1. taldea: 15,00 euro.
- 2. taldea: 30,00 euro.
- 3. taldea: 10,00 euro, 2 ordu bitarte.
 - 15,00 euro, 4 ordu bitarte.

–Lagatzea, 4 ordutik gora.

- 1. taldea: 3,00 euro/ordua.
- 2. taldea: 7,00 euro/ordua.
- 3. taldea: 3,00 euro/ordua.

C.–Ikus-entzunezko materiala (musika-ekipamendua, proiektagailua, ordenagailua, mikrofonoa, pantaila).

Erabilitako elementu bakoitzeko, 24 ordurako: 10 euro.

Noiz ordaintzetik salbuetsirik: Gizarte etxea kudeatzen duten udalak edo udal horiek osatzen dituzten mankomunitateak eta udal horien barreneko kontzejuak.

Irizpide berekin, tarifa hauek guztiak gainerako udal eraikinetan dauden bertze areto edo toki batzuk alokatzen direnean aplikatuko dira orobat.

7.–ULTZAMA UDALAREN JABETZAKO HERRILURRETAKO APROBETXAMENDUEI BURUZKO ORDENANTZAK

Etzerako egurraren aprobetxamenduagatik ordaindu beharreko kanona 40 eurokoa izanen da, egur lote bakoitzeko.

Herri-larreetan bazkatzeagatik azienda mota bakoitzak ordaindu beharreko kanona (ordenantzaren 20. artikulua) honako parametro hauen arabera ezarriko da:

1. taldea: Goiko larreak edo irekiak:



AYUNTAMIENTO
DEL VALLE DE
U L Z A M A
(Navarra)
ULTZAMA
U D A L A

- Zaldi aziendako buru bakoitzeko: 10 euro urtean.
- Ardi aziendako buru bakoitzeko: 8 euro urtean.
- Ardi aziendako buru bakoitzeko: 1 euro urtean.
- Zaldi txikien aziendako (poniak) buru bakoitzeko: 2 euro urtean.

2. taldea: Hegoaldeko larreak edo itxiak:

- Zaldi aziendako buru bakoitzeko: 15 euro urtean.
- Ardi aziendako buru bakoitzeko: 12 euro urtean.
- Ardi aziendako buru bakoitzeko: 2 euro urtean.
- Zaldi txikien aziendako (poniak) buru bakoitzeko: 4 euro urtean.

Zehazturiko artikuluek eta tarifen eranskinek ordenantzetan agertzen zirenak ordeztuko dituzte, lehenagoko horiek indarrrik gabe geldituko baitira hemen azaldutakoei aurka egiten dieten guztian.

Larraitzarren, 2017ko urtarrilaren 5ean.-Alkatea, M.^a Aránzazu Martínez Urionabarrenechea.